

I. ERANSKINA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa arautzen duten oinarri arautzaile orokorrak.

1. Oinarria. Objektua.

Oinarri hauen objektua da Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programako dirulaguntzen emakida arautzea, II., III., IV., VI. eta VIII. eranskinetan ezarritako oinarri espezifikoetan eta jarduketa eremu hauetan:

- a) II. eranskina: Aukerak eta gaitasunak balio alorretan eraldatzea.
- b) III. eranskina: Enpresa jardueraren jarraipena sustatzea.
- c) IV. eranskina: Enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzea.
- e) VI. eranskina: Ekonomia sortzailea balioestea.
- g) VIII. eranskina: Gipuzkoako ekosistema sozio-ekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatu.

2. Oinarria. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.

2.1 Eskaerek proiektu bat edo bat baino gehiago bil ditzakete, baina horietako bakoitzak II., III., IV., VI., eta VIII eranskinetako 3. oinarrian zehaztu diren diruz laguntzeko jarduketa alorretakoa izan behar du.

Zuzenbidean baliozkoa den edozein bide bitartez entitate eskatzailearen ordezkaria dela egiaztatzen duen pertsonak sinatu behar du dirulaguntza eskaera.

2.2 Deialdi bakoitzaren informazioa eta eskaeraren inprimakiak eskuragarri egongo dira Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuaren web orrian www.gipuzkoa.eus/web/ekonomia nahi duenarentzat.

2.3 Eskaera orria eta atxikitzen den dokumentazioa, nagusiki, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuaren honako web orri honen bitartez aurkeztuko dira: <http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>.

2.4 Dena dela, eskaera orriak eta deialdian zehazten diren gainerako agiriak Gipuzkoako Foru Aldundiko erregistro elektronikoaren bidez ere aurkeztu ahal izango dira (<https://egoitza.gipuzkoa.eus>).

2.5 Deialdian finkatuko da eskaerak aurkezteko epea.

2.6 Eskaera egin duten entitateak ez daude beharturik Gipuzkoako Foru Aldundiari aurrez eman diren dokumentuak aurkeztera. Ondorio horietarako, interesdunak eskaera orrian zehaztu beharko du noiz eta zer administrazio-organoren aurrean aurkeztu zituen dokumentu horiek, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.3 artikulua zehazten duenari jarraituz. Dokumentazioa lortzea ezinezkoa den kasuetan, organo eskumena duen organoak eskatu ahal izango dio eskaera egin duen entitateari, edo aurkez dezala, edo, ezin badu, beste nolabait egiazta ditzala dokumentuan egiaztatu beharreko eskakizunak.

2.7 Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek, identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke eskatzaileari hutsegite horiek konpontzeko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean, ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran emandako ebazpenaren ondoren.

Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko eta erabakitzeko beharrezkotzat jotzen dituen argibideak eskatu ahalko ditu.

Proiektuaren memorian ezingo da zuzenketarik egin. Nolanahi ere, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak memoriaren inguruko informazio argigarria eskatu ahal izango du behar bezala ebaluatu dezan.

2.8 Entitate eskatzaileak baliozkotzat joko ditu Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak posta elektronikoaren bidez dirulaguntzaren eskaeran harremanetarako pertsona gisa identifikatutakoaren helbide elektronikora bidalitako komunikazio guztiak.

3. Oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura.

3.1 Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

3.2 Dirulaguntzak emateko prozedurari ofizioz ekingo zaio, eskudun den organoak onartu eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den deialdiaren bidez.

4. Oinarria. Finantzaketa.

4.1 Emango diren dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdian ezarriko dira dirulaguntzak finantzatzeko zein aurrekontu kreditu erabiliko diren.

4.2 Dirulaguntzen zenbatekoek inolaz ere ezingo dute diruz lagundutako jardueraren kostu osoa gainditu, ez hemen araututakoa baizik jasotzen ez dutenean, ez hemen araututakoarekin batera bestelako dirulaguntza, laguntza, sarrera edota baliabidea jasotzen dutenean.

5. Oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehuneko eta zenbatekoak.

5.1 Dirulaguntza lerro bakoitzeko dirulaguntzen portzentajea eta gehieneko zenbatekoak jarduera eremu bakoitzaren oinarri espezifikotetan zehaztuko dira.

5.2 Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontua edota gerora aldatutakoa erreferentziazat hartuko da dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa kalkulatzekoan.

6. Oinarria. Prozedura ordenatu eta bideratzeko organo eskuduna.

6.1 Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuak bideratuko du prozedura.

6.2 Aurkeztutako eskaerak aztertu eta ebaluatzeko, ebaluazio batzorde bat eratuko da, eta horretako kide izango dira honakoak:

- Ekonomia Sustapeneko zuzendari nagusia.
- Ekonomia Sustapeneko zerbitziburua.
- Ekonomia Sustapeneko Zerbitzuko teknikari bat.
- Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuko idazkari teknikoa.

6.3 Batzorde horrek, nolanahi ere, bidezko aholkularitza eta txosten teknikoak eska ditzake, aurkeztu diren eskaerak modu egokian balioetsi ahal izateko.

7. Oinarria. Dirulaguntza emateko ebazpena.

7.1 Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuaren egitura organiko eta funtzionala arautzen duen indarrean dagoen foru dekretuan xedatutakoarekin bat etorriz, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuko foru diputatuari dagokio dirulaguntza emateko edo, kasua balitz, ukatzeko ebazpena ematea.

7.2 Dirulaguntza emateko, edo kasua balitz, ukatzeko ebazpena entitate eskatzaile bakoitzari jakinaraziko zaio.

Edozein modutara, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere argitaratuko ditu emandako dirulaguntzak, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 17. artikuluan ezarritakoaren arabera.

7.3 Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea 6 hilekoa da, deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatuta, salbu deialdian bertan bere eragina beranduago hasiko dela aurreikusi. Gehieneko epe hori berariazko ebazpena jakinarazi gabe igaroko balitz, interesdunak legitimatuta egongo dira beraiek egindako eskaera ezetsitzat jotzeko isiltasun administratiboaz.

7.4 Proposatutako dirulaguntzaren zenbatekoa aurkeztutako eskaeran agertzen dena baino txikiagoa denean, organo eskudunak entitate onuradunari eska diezaioke eskaera birformulatzeko, konpromisoak eta baldintzak eman dakioken dirulaguntzara egokitu ahal izateko.

8. Oinarria. Entitate onuradunen betekizun eta konpromisoak.

8.1 Entitate onuradunek dirulaguntzak onartzeak martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartutako Erregelamenduak eta dirulaguntzen alorreko gainerako araudi aplikagarriak ezarritako betebeharrak betetzea dakar, baita oinarri orokor hauetan nahiz espezifikoean ezartzen direnak ere.

8.2 Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da diruz lagundutako proiektuaren ondorioz egiten diren jakinarazpenetan, argitalpenetan eta zabalkunde jardueretan, hala agintzen baitu 2018ko ekainaren 26ko Diputatuen Kontseiluaren erabakiak, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planak, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere organismo autonomoen jardura esparruetan 2018-2022 aldirako onartzen duenak (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 149 zk. 2018ko abuztuaren 3koa).

8.3 Diruz lagundutako proiektuaren diseinu eta garapenean genero-ikuspegia gehitzea.

8.4 Diruz lagundutako proiektuan bermatzea komunikazio eta argitalpen guztietan hizkeraren erabilera ez sexista.

8.5 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak diruz lagundutako proiektu edo jardueren sustapen eta finantzaketari publizitate egokia ematea, Aldundiaren erakunde-irudiaren bidez zein finantzaketa publikoari eta esku-hartze publikoaren helburuari buruzko aipamenei bidez, horma-irudi, inprimatutako material, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan, eta beste edozein euskarritan, edo komunikabideetan egindako adierazpenen bidez.

8.6 Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ezartzen dituen ebaluazio baldintza guztietan parte hartu eta bete behar dira; horien bitartez, jarduerak eta emaitzak eta inpaktuak neurtuko dira eraginkortasunetik eta eragimenetik.

8.7 Emandako dirulaguntzak ondasun inbentariagarriak erosteko erabiltzen badira, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 30.4. artikuluan ezarritakoa bete behar da.

Horrenbestez, entitate onuradunak dirulaguntzaren xederako erabili behar du eskuratutako ondasun hori, gutxienez 5 urtetan erregistro publiko batean inskriba daitekeena bada, eta gutxienez 2 urtetan beste kasu guztietan.

8.8 Dirulaguntza eman zenetik bost urteko epean, Gipuzkoako Lurralde Historikotik kanpo helbide soziala, fiskala edo produkzio zentroetako zati nabarmen bat beste toki batera eramanez gero, dirulaguntza itzuli behar da eta 15. oinarrian ezarritakoa aplikatuko da.

9. Oinarria. Diruz lagundutako jarduerak azpikontratatzea.

Entitate onuradunek beste batzuekin hitzartu dezakete dirulaguntzaren xedeko jardura osoa edo zati bat beraiek egitea, baldin eta martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 28. artikuluan ezarritako beharkizunak betetzen badira. Inolaz ere ezingo da azpikontratatu diruz lagundutako jardueraren kostua areagotuz jardura horri ezer gehitzen ez diotenak.

10. Oinarria. Bestelako dirulaguntzekiko bateragarritasuna ala bateraezintasuna.

10.1 VIII. Eranskineko dirulaguntzei dagokiona izan ezik, dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako

beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderek, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

10.2 VIII. eranskineko dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste edozein administraziok edo erakunde publikok nahiz pribatuk, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak, helburu bera lortzeko emandako diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin, ekainaren 17ko 651/2014 Erreklamendu Orokorrak, kategorien arabera salbuespenari buruzkoak, aurreikusitako gehieneko kopurura arte.

10.3 Oinarri hauen babesean jasotako dirulaguntzaz garatutako proiektua garatzeko beste dirulaguntzaren bat eskuratu edota eskatu duen onuradunak modu fidagarrian jakinaraziko dio zirkunstantzia hori Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuari.

11. Oinarria. Dirulaguntzak ordaintzea.

11.1 Dirulaguntza, proiektua amaitutakoan ordainduko da, 13. oinarrian aurreikusitako justifikazioa aurkeztu eta gero.

11.2 Hala eta guztiz ere, ordainketa aurreratuak egin ahal izango dira, bermeen beharrik gabe, beharrezko finantzaketa gisara dirulaguntzari atxikitako jarduerak aurrera eraman ahal izateko, aintzakotzat hartuta zer helburu duen laguntzak, proiektuen sustapen eta ekimen programa, horien xedea izanik garatzea lehiakortasun jasangarriko eta lurralde edo sektorekako harremanetako eredu berriak, halako prozesuak sortzen baitira epe luzeko ikuspegi batekin eta zuzeneko inpaktu bat izango dutenak pertsonen ongizatean eta lurraldearen iraunkortasunean, zeintzuen izaera esperimentalak zailtzen baitu eskuragarritasuna finantza erakundeen barruan, prozesu horiek berekin baitakarte gauzatze aldi luzeak, zeintzuentzat beharrezkoa baita finantzaketa edukitzea hasieratik, egingarri eta bideragarri egin dezan haien garapena eta diruz lagundutako proiektuak hasi ahal izateko funtsen beharra kontuan hartuta, proiektu gehienak irabazi asmorik gabeko erakundeek enpresa txiki eta ertainetan inplementatuak baitira, zeintzuek finantza zailtasun handiak baitituzte dirulaguntzaren helburuak garatzeko, eta kontuan harturik aurreko esperientzietan proiektuek izan duten gauzatze maila. Dena den, entitate onuradunak aurretik eskatu eta zurituko du ordainketa aurreratuaren beharra. Laguntzaren aurrerakinak proiektuari ekiten zaionean eta hasiera hori behar bezala egiaztatuta dagoenean ordaindu ahal izango dira, betiere, aurrekontuetan baliabide nahikoa badago eta dirulaguntza osoaren % 60 gainditzen ez bada.

Halaber, dirulaguntzaren izaerak hala justifikatzen duenean, bigarren ordainketaren aurrerakina egin ahal izango da, % 25ekoa, betiere lehen aurreratutako diru kopurua behar bezala eta dokumentuz zuritu bada, baliabide nahikoa badago eta diruz lagundutako jardueren gauzatze erritmoarekin eta aurkeztutako zuriaketekin bat baldin badator.

11.3 Salbuespen gisa, emandako dirulaguntza oso-osorik ordaindu ahal izango da proiektua edo jarduera amaitu baino lehen, diruz lagundutako jarduerak aurrera eraman ahal izateko beharrezko finantzaketa moduan, horretarako banku edo finantza erakundearen abala aurkeztu beharko da, Gipuzkoako Foru Aldundiaren iritziz nahikoa dena. Eratu beharreko abal horren zenbatekoa ordainketa aurreratuarena %3 gehituta izango da.

Abala indargabetu egingo da dirulaguntzaren xedeko proiektua amaitu dela deskargu tekniko, ekonomiko eta finantzarioz egiaztatzen denean, hain justu, 13. oinarrian aurreikusten den dokumentazioa aurkeztuta.

11.4 Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 32. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, ezin izango da inolako ordainketarik egin entitate onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko edota entitate laguntzaileekiko betebeharrak betetzen ez dituen bitartean. Hori dela eta, ordaindu baino lehen, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeo Departamentuak egiaztatuko du eskatzaileak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela. Horretarako, zuzenean eskatuko ditu datu horiek dagozkion organismo igorleetatik; hori posible izango ez balitz, eskatzaileari eskatu ahal izango zaio dagozkion dokumentazioa aurkeztea.

11.5 Ordainketa aurreratu eginez gero, entitate onuradunak pasibo gisa adierazi beharko du jasotako aurrerakina enpresaren kontabilitatean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari itzuli beharko dio aurrerakin horren itzulketa erabitzen duen ebazpenean horrela ezartzen bada.

12. Oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

12.1 Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkeztu duen aurrekontu banakatu eta xehatua jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean.

12.2 Diruz lagungarriak izango diren kostuak jarduera eremu bakoitzaren oinarri espezifikoean zehaztuko dira

12.3 Nolanahi ere, ez dira hautagarriak izango 300 eurotik beherako kostuak.

12.4 Ez dira kostu hautagarriak izango onuradunarekin lotura duten pertsoneri edo entitateei dagozkienak, salbuespen hauekin:

- Merkatuko baldintza arrunten arabera egiten denean; eta

- Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuaren baimena lortzen denean, oinarri arautzaile espezifikoean adierazitako moduan.

12.5 Kostu hautagarriak aztertzean eta erabakitzean, departamentuak alderdi hauek hartuko ditu kontuan: proiektuaren konplexutasun maila, espero den inpaktua, entitateak arlo horretan duen gaitasun profesionala, lehia egotea, eta, merkatuko balioa inoiz ere gainditu gabe.

13. Oinarria. Dirulaguntza zuritzea.

13.1 Kasu guztietan, diruz lagundutako jarduera bukatu duela zuritu beharko du entitate onuradunak, baita diruz lagundutako jarduerak sortutako kostuak ere.

13.2 Dirulaguntzaren xedeko proiektua edo jarduera hilabeteko epearen barruan zuritu behar da, eta epe hori diruz lagundutako proiektu edo jarduera hori gauzatzeko epea, urteko deialdian ezarriko dena, amaitzen denetik kontatuko da.

IX. eranskineko dirulaguntzen kasuan, justifikatzeko epea bi asteak izango da, proiektua edo jarduera gauzatzeko aldia, urteko deialdian zehaztuko dena, amaitzen denetik zenbatzen hasita.

13.3 Aurreko paragrafoan aipatu hilabeteko epearen barruan entitate onuradunak kontu zurigarria aurkeztu behar du honako dokumentuekin:

- Jarduera memoria bat, dirulaguntza ematerakoan ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko. Zer jarduera burutu den eta zer emaitza izan den adierazi behar da. Proiektua gauzatzeko sortutako agiri eta txosten guztiak sartu behar dira.

- Memoria ekonomikoa, jardueren kostuak zuritzeko, honako eduki hau izango duena:

- Jardueraren kostuen zerrenda sailkatua, hartzekoduna eta dokumentua identifikatuz, baita zenbatekoa, horren jaulkipen data eta, beharko balitz, baita ordainketa data ere. Dirulaguntza aurrekontu baten arabera eman denean, gertatu diren desbideratzeak adieraziko dira.
- Fakturak edo merkataritzaren trafiko juridikoan froga baliokide diren edo administrazioan eragina duten dokumentuak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan gehitu direnak, alegia, eta, beharko balitz, ordainduaren edo dudarik gabe konprometitu denaren dokumentazioa.
- Diruz lagundutako jarduera finantzatzeko erabili diren bestelako sarrera edo dirulaguntzen xehetasunezko zerrenda, baita horien zenbatekoak eta jatorriak ere.
- Nominak eta 190 eredia, eta/edo Langileen Zerrenda Nominala-RNT barruko langile gastuak justifikatzeko. Langile autonomoen eta/edo bazkide kooperatibisten kasuan, RNT beharrean, dagokion Gizarte Segurantzaren edo antzeko entitatearen ziurtagiria.
- Orduen txostenak, entitate eskatzaile, onuradun eta kontratatuetako parte-hartzaile bakoitzak proiektuari esleitutako arduraldi eta kostuen eguneko banakapena adierazita, garatutako fase eta eginkizunak oinarri hartuta.
- Entitate onuradunek ekipo ondasunen hornikuntzetan edo aholkularitza nahiz laguntza teknikoko enpresen zerbitzuetan 15.000 euro edo hortik gorako kostu subentzionarioak egin badituzte, eskatutako hiru eskaintzen artean egindako hautaketa egiaztatzen duen agiria, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren 30.3 artikuluari



jarraikiz, non eta laguntzaren ezaugarri bereziengatik merkatuan nahikoa enpresa edo profesional ez dagoenean edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin ez den.

Aurkezten diren eskaintzen arteko hautaketa dirulaguntzaren justifikazioan aurkeztu beharko da, eta hautaketa egiteko eragimena eta ekonomia izango dira aplikatuko diren irizpideak. Proposamen ekonomikorik merkeena aukeratzen ez denean, erabakia berariaz justifikatu beharko da memoria batean.

- Diruz lagundutako proiektuaren dokumentazio grafikoa, argazkiak edo ikus-entzunezkoak.

13.4 Kostuak egiaztatzeko, jatorrizko agirien kopia elektronikoa, informatikoa edo telematikoa aurkeztuko da, betiere agiri horiek egiazkoak direla, osorik daudela eta gorde daitezkeela bermatzen bada.

13.5 Dirulaguntza zuritzeko ezarrita dagoen epea oinarri honetan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu gabe igarotzen bada, eskudun den organoak 15 eguneko epea eman ahalko dio entitate onuradunari dokumentazio hori aurkezteko. Epe gehigarri hori zurigarriak aurkeztu gabe igarotzen bada, 15. oinarrian aurreikusten diren ondorioak aplikatuko dira.

13.6 Onuradunak 4 urtez gorde behar ditu derrigorrez dirulaguntzaren xedeko izan den jarduera egin izanaren zurigarriak, hala nola jasotako funtsa erabili izanaren egiaztagiria. Zurigarri horiek guztiak aurkezteko ezarrita dagoen aldia amaitzen den une berean hasiko da kontatzen epe hori.

13.7 Oinarri honetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, organo instruktoreak egoki diren egiaztapenak egingo ditu.

Egiaztapen horien bidez ondorioztatuko balitz diruz lagundutako jardueraren kostua emandako dirulaguntza baino txikiagoa izan dela, dirulaguntza doitu egingo da. Dirulaguntza zuritzeko baldintza guztiak edo batzuk ez direla bete edo dirulaguntzaren xedea ez dela zati batean edo osoan bete ondorioztatzen bada, onuradunari jakinaraziko zaio hori, egindako egiaztapenen emaitzekin batera. Halaber, dirulaguntza kobratzeko eskubidea galdutzat jotzeko prozedurari ekingo zaio edo, kasua balitz, 15. oinarrian aurreikusten den prozedurari, emandako dirulaguntza osoa edo zati bat itzularazteko.

14. Oinarria. Ebazpena aldatzea.

14.1 Diruz lagundutako jarduera burutzeko ezarri den epea amaitu baino lehenago, dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea eska dezake onuradunak, ezarritako epea luzatzeko, emandako zenbatekoa murrizteko, diruz lagundutako aurrekontu sailak aldatzeko edota jarduera osatzen duten ekintzak aldatzeko. Aldaketa horiek onar daitezke beren arrazoia ustekabeko zirkunstantzietan oinarritzen denean edota jarduera burutzeko premiazkotzat jotzen direnean, baldin eta dirulaguntzaren xedea edo helburua aldatzen ez bada eta beste pertsona batzuen eskubideak kaltetzen ez badira.

14.2 Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak ofizioz aldatu ahal izango du dirulaguntza emateko ebazpena, entitate interesdunari aurrez entzunda eta funtsak aplikatu aurretik, dirulaguntza emateko unean kontuan izandako baldintzak aldatu direla-eta ezinezkoa edo zaila denean erdietsi nahi den interes publikoa lortzea eta entitate onuradunari kalte ekonomikorik eragiten ez bazaio.

14.3 Entitate onuradunak, dirulaguntzaren justifikazioan, aditzera ematen badu hainbat aldaketa gertatu dela dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzetan, aldaketa horietarako beharrezkoa zen baimen administratiboaren tramitera jotzeke, eta ikusten bada aldaketa horiek kontuan hartuz gero ebazpenaren emaitza agian beste bat izango zela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak onartu ahal izango du aurkeztutako justifikazioa, baldin eta onartze horrek ez badu hirugarren pertsona batzuen eskubideak kaltetzea eragiten; dena den, horrek ez du onuraduna salbuesten Gipuzkoako Lurralde Historikoaren dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauaren arabera jar bide zaizkion zigorretatik.

15. Oinarria. Ez betetzeak eta itzulketak.

15.1 Entitate onuradunak ez badu betetzen oinarri hauetan, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan eta aplikagarriak diren bestelako araudietan ezarritako betekizun edo baldintzetako edozein, dirulaguntza jasotzeko eskubidea erabat edo zati batez galduko du, eta dirulaguntza osorik edo zati batez itzuli beharko du, dagozkion berandutze interesak ordaintzeaz batera, aipatutako Foru Arauaren 35. artikuluan xedatutakoarekin bat. Osterantzean, honetatik ondoriozta daitezkeen erantzukizunak egokituko zaizkio, Foru Arau horretako 49. artikuluan eta hurrengoetan

xedatutakoaren ildotik.

15.2 Ez betetzeak mailakatzeko, proportzionaltasun irizpideak erabiliko dira. Horiek organo izapidegileak aplikatuko ditu egindako lanen arabera eta proiektuaren osotasunari eta jasotako zenbatekoei begira.

15.3 Borondatezko itzulketatzat jotzen da entitate onuradunak dirulaguntza ematen duen organoak eskatu gabe egiten duena.

Itzultzeko prozedura hasteko, idatzi bat bidali behar dio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuko foru diputatuari, eta bertan, datu hauek sartu behar ditu, nolana ere:

- Entitatearen izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Ordezkararen izen-abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.
- Borondatezko itzulketa egiteko arrazoiaren azalpena.
- Tokia eta data.
- Sinadura.

Eskaera hori jaso ondoren, Ekonomia Sustapeneko zerbitzuak ordainketa gutuna bidaliko dio, itzultzeko zenbatekoa eta dagozkion berandutza interesak adieraziz.

16. Oinarria. Sustapen eta finantziario publikoen eragina.

Ebaluazio-prozesu integral bat ziurtatu ahal izateko, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentuak, ahal den neurrian, Ogasun eta Finantza Departamentuarekin kontrastatuko ditu, entitate onuradunek baimena eman ondoren, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 92.1.l) artikuluan xedatutakoaren arabera, laguntza-eskaeraren aurreko hiru ekitaldi fiskaletan eta ondorengo bost ekitaldietan, eragiketa-bolumenari eta negozio-zifrarari, esportazio-bolumenari, % 5etik gorako akziodunen nortasuna eta zerga helbideari, 3.000 eurotik gorako entitate hornitzaileei, beste sozietate batzuetako partaidetzari (nortasuna, zerga helbidea, portzentajea), oinarrizko jardueraren epigrafe fiskalari, batez besteko plantillari, plantillaren soldata-kostuari; eta, sozietateen gaineko zergaren kuota efektiboari buruzko datuak.

17. Oinarria. Europar Batasuna.

17.1 Oinarri arautzaile hauen II, III, IV eta VI. eranskinetan dauden laguntzak 2013ko abenduaren 18ko Europar Batzordearen 1407/2013 EB Erregelamenduan (abenduaren 24ko Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratua), minimis laguntzak Tratatu 107. eta 108. artikuluen aplikazioari buruzkoan, xedatutakoa beteko dute. Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa bakar bati emandako minimis laguntzak ezin dira guztira 200.000 eurotik gorakoak izan dagokion zerga ekitaldian eta aurreko bietan.

17.2 Laguntzaren eskatzaileak dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan jasotako beste «de minimis» laguntza batzuk aitortu behar ditu, erregelamenduak ezartzen duen gehieneko muga ez duela gainditzen frogatzeko.

17.3 Oinarri hauetako VIII. eranskineko dirulaguntzen esparrua izango da Europar Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamendua (EB) (bereziki, 25. artikulua), laguntza kategoriatan batzuk merkatu batuarekin bateragarri direla deklaratzeko duen 107 eta 108. artikulua aplikatuta.

17.4 Oinarri hauetako IX. eranskinean jasotzen diren dirulaguntzak ez dira estatu-laguntzak, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko 107. artikuluan ezarritakoari jarraituz; izan ere, ez dute lehia faltsutzen edo horretarako mehatxatzen; ez dute enpresa jakin batentzat onura edo irabazirik suposatzen; ezta produkzio edo enpresa jakin batzuen alde egiten ere, beste batzuen kalterako.

18. Oinarria. Araubide juridikoa.

Oinarrietan ezarritakoaz gain, dirulaguntza hauei honako hauek aplikatuko zaizkie: Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Araua eta hori garatzeko Erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuz onartua, eta dirulaguntzen alorrean aplikagarria den gainerako araudia.

II. ERANSKINA

Aukerak eta gaitasunak balio alorretan eraldatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. Oinarria. Objektua.

Aukera berriak sortzea ahalbidetuko duten gaitasunak eta jarduerak sustatzea, jardueraren eraldaketa sustatuz, jarduera berrien eta enpresa-eredu iraunkor berrien balio-ekarpenaren bidez.

2. Oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoiak diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7. oinarrian aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren adierazpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta sozietate publikoak, 2.1 b) eta c) oinarrian ezarritako entitateak salbu.

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. Oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauetarako eraldaketa-proiektuak garatzea izango da:

- Negozioaren eskumenak eta/edo oinarrizko eskumenak identifikatzea, etorkizunean potentzial handiagoa izango duten enpresa aukerak garatzeko balioa sortzen dutenak (atzerriara konektatutako enpresaren ezagutza bereizgarria identifikatzea eta zentzuz ustiatzea).
- Eskuin-ezkerria ikuspegia barne hartzen duen antolaketa-diseinua garatzea (egungo gaitasunak ustiatzeko potentzialtasuna, etorkizuneko garapenerako aukera berriak esploratzeari utzi gabe).
- Barnekintzailtzeko dinamikak ezartzea (enpresaren barruan aldeko testuinguru bat sortzea, pertsonen eta enpresen berezko gaitasunak aprobetxatzeko etengabeko dinamika baten bidez, bai barnekoa bai ingurunera irekia, negozio lerro edo jarduera ekonomiko berriak sustatzeko).
- Negozio aukera berriak sortzen dituzten dinamikak ezartzea, prospektiba eta aurreratze teknikak barne hartzen dituztenak (enpresan eta kanpoan dagoen ezagutza eta sormena modu intentsiboan erabiliz eta konbinatuz, aurrez kontrastatutako merkatu balioko proposamenetan).
- Negozio ereduak balio erantsi handiagoko proposamenetara bideratzea, serbituzioa barne –produktutik produktu eta zerbitzu binomiora doan eboluzioa-.
- Eraldaketa eta dibertsifikazio irekiko egiturazko prozesuak diseinatzea (balioa eta ezagutza ematen duten kanpoko erakunde edo profesionalekin lankidetzan aritzeko eta konfiantza sortzeko prozesuak).
- Bideragarri egitea jarduera produktiboak Gipuzkoara itzultzea (Reshoring), baldin eta aurrez azpikontratutakoak, tokialdatutakoak edota Gipuzkoako enpresek EAetik kanpo garatutakoak badira;
- Ekonomia zirkularraren esparruan aukerak identifikatzea eta antolatzea, eta baita ere eko-diseinuaren eta eko-zerbituzioaren esparruan.
- Aukerak identifikatzea eta antolatzea, ekonomia sortzailearekin lotutako jarduerak txertatuz.

4. Oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea (hartutako estrategiaren argitasuna eta izaera bereizgarria; proposatutako helburuen eta erabilitako metodologiaren eta tresnen arteko dimentsionamendu eta koherentzia egokia, eta programaren helburuekiko lerrokatze maila): 40 puntu gehienez.
- b) Eragina, alde batetik, enpresaren ikuspuntutik izango duena, merkatuetara sartzen, fakturazioan, eta enplegua finkatzen eta sortzen; eta, bestetik, lurraldearen ikuspuntutik, Gipuzkoako enpresa ehunean izan dezakeena: 30 puntu gehienez.
- c) Jasangarritasun hirukoitza hartzearekin duen harreman maila, eta antolaketa eraldaketa kalitatezko enpleguaren ikuspuntutik: 20 puntu gehienez.
- d) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntu gehienez.
- e) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntu gehienez.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. Oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 25a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsoneri dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei dagozkienak bakarrik.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpresa elkarte eta klusterren kasuan; horietan, kostu hautagarri gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. Oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.

III. ERANSKINA

Enpresa jardueraren jarraipena sustatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. Oinarria. Objektua.

Enpresa jardueraren jarraipena sustatzea, enpleguari eustea eta Gipuzkoan enpresak sustraitzea.

2. Oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarteen federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituztenak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketan edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7 oinarrian aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren adierazpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenez eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta sozietate publikoak, 2.1 b) eta c) oinarrian ezarritako entitateak salbu.

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. Oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak eraldaketa proiektuak izango dira, eta helburu hauek izango dituzte:

- Enpresaren ondorengotza eta/edo transmisioa planifikatzea.
- Enpresaren hazkunde ez-organikorako estrategiak definitzea.
- Enpresaren transmisioko prozesuak garatzea.
- Belaunaldi erreleboa bermatzea.
- Gobernu korporatiboko egiturak eta prozesuak sortzea eta horiek trebatzea.

4. Oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- Proposamenaren kalitatea (hartutako strategiaren argitasuna eta izaera bereizgarria; proposatutako helburuen eta erabilitako metodologiaren eta garatutako tresnen arteko dimentsionamendu eta koherentzia egokia, eta programaren helburuekiko lerrokatze maila): 40 puntu gehienez.
- Lortu beharreko inpaktua, enpleguaren sorrerari, mantentzeari eta kalitateari dagokienez: 30 puntu gehienez.
- Gipuzkoako enpresa sarean sortu beharreko inpaktua: 20 puntu gehienez.
- Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntu gehienez.
- Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntu gehienez.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. Oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 25a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsoneri dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei

dagozkienak bakarrik.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpresa elkarte eta klusterren kasuan; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. Oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak.

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.

IV. ERANSKINA

Enpresen arteko lankidetzarako dinamikak egituratzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. Oinarria. Objektua.

Gaitasun lehiakorrek bultzatzea enpresen arteko lankidetzaren bitartez, proiektu jakin batzuk eta enpresa aukera berriak garatzeko dimentsio egokia (merkatuei erantzuteko ahalmena) lortzeko.

2. Oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira Gipuzkoan kokatutako eta lankidetzaren edota laguntza formularen baitako enpresak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoia diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden, aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7 oinarrian aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren adierazpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan beratu osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta Sozietate publikoak

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneen Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. Oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

Dirulaguntza jaso ahal izango dute enpresetan eraldaketa proiektu hauek garatzeko jarduerak:

- Enpresen arteko lankidetzarako ereduak diseinatzea eta aplikatzea;
- Enpresen dimentsio berriak sortzea;
- Lankidetzan diharduten enpresen lehiakortasuna eta iraunkortasuna handituko duten lankidetzaren proiektuak gauzatzea Ekonomia Sustapeneko Zuzendaritzaren eskumenen barruan.

4. Oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskaerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea (hartutako estrategiaren argitasuna eta izaera bereizgarria; proposatutako helburuen eta garatu beharreko ekintza, tresna eta metodologiaren arteko dimentsionamendu egokia eta koherentzia, eta programaren helburuekiko lerrokatze maila): 30 puntu gehienez.
- b) Lankidetzaren intentsitatea eta kalitatea (inplikaturako enpresak, enpresa eskatzaileak lankidetzako lan bezala – bai entitatearen barruan, bai hirugarren entitateekin batera– bere gain hartutako konpromisoak, eta garatutako partaidetza-prozesuak): 25 puntu gehienez.
- c) Lankidetzaren eragina, merkatuetara sarbidea izateko, fakturatzeko, bai eta enplegua finkatzeko eta sortzeko ere: 25 puntura arte.
- d) Aurkeztutako jardueraren garapenerako bideragarritasun finantzarioa: 10 puntura arte.
- e) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.
- f) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. Oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuen gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsonen dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiari eta egonaldiei dagozkienak bakarrik.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpresa elkarte eta klusterren kasuan; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. Oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak.

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 75 izango dira.

VI. ERANSKINA

Ekonomia sortzailea balioesteko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. Oinarria. Objektua.

Ekonomia sortzaileak eraldatzeko duen balioa sustatzea aukera eta balio erantsiko esparruak sortzeko eta garatzen laguntzeko.

2. Oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Gipuzkoan kokatutako enpresak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarten federazioak eta elkarteak, eta, klusterrak.
- c) EAEn kokatutako enpresen elkarteak, enpresen elkarten federazioak eta elkarteak, eta klusterrak, Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzen dituztenak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoiak diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.7 oinarrian aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren adierazpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan berau osatzen duen entitateen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botereekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenaz eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Ez dira entitate onuradunak izango: elkarteak, fundazioak, federazioak, eta, entitate eta sozietate publikoak, 2.1 b) eta c) oinarrian ezarritako entitateak salbu.

2.4 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.5 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.6 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.7 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Ingurunekeko Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. Oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

Diruz laguntzekoak izango dira ekonomia sortzailearen ikuspegitik balioa sortzeko diren eraldaketako proiektuak garatzeko jarduketak, honako helburu hauek dituztenak:

- Enpresa proiektu eta/edo jarduera berriak bultzatzea ekonomia sortzailearen eremuan.
- Pertsonetan oinarritutako diseinua txertatzea (erabiltzaileak eta bezeroak eraldatzeko prozesuak, enpresetako eragile aktibo gisa).
- Ekonomia sortzaileak sortutako aukeretara egokitutako estrategiak diseinatzea.
- Lankidetzaren sareak sortzea, garatzea eta/edo horietan parte hartzea.
- Enpresa edo lurralde arloko gaitasunak eta balio-kateak identifikatu eta garatzea, baita horietan oinarritutako aukerak ere.
- Sinergiak sortzea eta hibridatzea jarduera sektore desberdinen artean (ekonomia sortzailearen sektoreen artean eta ekonomia sortzailetik kanpo dauden sektoreen artean).
- Balio erantsiko negozioak eta jardunbide egokiak modelizatzea
- Balio proposamen berriak egituratzea ekonomia sortzailearekin hibridatuz.

4. Oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1 Eskerak hautatzeko honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea (hartutako strategiaren argitasuna eta izaera bereizgarria eta eraldatzailea, eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko ekintzen eta metodologiaren arteko dimentsionamendu egokia eta koherentzia, eta programaren helburuekiko lerrokatze maila): 40 puntu gehienez.
- b) Eragina, alde batetik, enpresaren ikuspuntutik izango duena, merkatuetara iristeari, fakturazioari, eta enplegua finkatu eta sortzeari dagokionez; eta, bestetik, lurraldearen ikuspuntutik, Gipuzkoako enpresa ehunean izan dezakeen eragina: 25 puntu gehienez.
- c) Lurralde eta/edo sektore garapenaren strategiarekin lerrokatzea: 15 puntu gehienez.
- d) Lankidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak lankidetzaren lan gisa bai entitatearen barruan bai hirugarren entitateekin, hartutako konpromisoak, baita garatutako partaidetza prozesuak ere): 10 puntu gehienez.
- e) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntu gehienez.
- f) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntu gehienez.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. Oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Barruko langileen kostuek ezingo dute gainditu kostu hautagarrien % 35a, eta gehieneko kostu hautagarria 35 euro/orduko izango da.

Pertsona bakoitzeko orduko kostua kalkulatzeko horrela egingo da:

Gizarte Segurantzako Kotizazio-Oinarria gertaera arruntak direla eta $x \cdot 12 \cdot 1,25$ / Urteko ordu kopurua.

Beste kotizazio-araubide batzuen mendeko pertsoneri dagokienez, Gizarte Segurantzaren araubide orokorreko oinarriarekin parekatutako oinarri bat hartuko da.

Gertakari arruntengatik Gizarte Segurantzaren kotizazio oinarria kalkulatzeko datua, eskaera aurkezteko unean eskuragarri dagoen azken datua izango da.

Urteko ordu kopurua langileak, lan-hitzarmenaren arabera, urtean egin beharreko ordu-kopurua da, kasu bakoitzean lanaldiaren murrizketaren portzentajea kontuan hartuta, halakorik egonez gero. Besterik adierazi ezean urteko 1.720 ordu hartuko dira.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.2 Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 euro/orduko gehienez.

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

5.3 Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiei eta egonaldiei dagozkienak bakarrik.

5.4 Zeharkako gastuak edo gastu orokorrak ez dira kostu hautagarriak izango, salbu enpresa elkarte eta klusterren kasuan; horietan, zeharkako kostu gisa, justifikazio beharrik gabe, diruz lagundu daitezkeen barneko langileen zuzeneko kostuen % 15a bakarrik hartuko da kontuan.

6. Oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak.

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 80 izango dira.

VIII. ERANSKINA

Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoan ezagutza sustatu, sortu, transferitu eta partekatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaile espezifikoak.

1. Oinarria. Objektua.

Aldeko testuingurua sustatzea trantsizio ekologiko, sozial eta ekonomikoek eragingo dituzten aukerak sortzeko, eraikitzeko eta/edo aprobetxatzeko, ikerketaren, transferentziaren eta hedapenaren bidez, Gipuzkoako ekosistema sozioekonomikoa balio erantsi eta/edo jasangarriko gaitasun berrien garapeneko eta kalitatezko enpleguko eremuetara eramateko.

2. Oinarria. Entitate onuradunen baldintzak.

2.1 Entitate onuradunak izango dira:

- a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarean sartuak dauden eta Gipuzkoan kokatuta dauden entitateak.
- b) Gipuzkoan kokatutako enpresa-elkarteak eta klusterrak.
- c) EAEn kokatuta dauden eta Gipuzkoan kokatutako enpresen interesak ordezkatzeko dituzten enpresa elkarteak eta/edo klusterrak.
- d) Dirulaguntzaren xede diren gaietan espezializatutako zerbitzu aurreratuen enpresak, Gipuzkoan kokatuak.

2.2 Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 10.3. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz, entitate onuradunen izaera, nortasun juridikorik izan gabe ere dirulaguntza emateko arrazoiak diren proiektuak, jarduerak edo portaerak burutu ditzaketen edo dirulaguntza jasotzeko egoeran dauden aurreko atalean aipatu diren entitateen, elkarte publiko edo pribatuetara zabaltzen da. Kasu honetan, dagokion eskaeran taldea osatzen duen entitate bakoitzak bere gain hartzen dituen gauzatze konpromisoak jaso behar dira eta horietako bakoitzari aplikatu beharreko dirulaguntzaren zenbatekoa; horiek ere onuraduntzat joko dira. Eskaerarekin batera 2.6. oinarrian aipatzen den erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, taldea osatzen duten entitate bakoitzaren adierazpena, izan ere, taldeak ezingo du onuradun izaera izan beratu osatzen duen entitatearen batek ezin badu, martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuz.

Dena den, taldearen ordezkari gisa entitate bat izendatu behar da, dagozkion betebeharrak betetzeko behar beste botererekin. Entitate ordezkari hau prozesuaren koordinatzailea izango da, horren garapenez eta kudeaketaz arduratzeko ondorioetarako, eta bere gain hartuko ditu, halaber, prozesua ondo joan dadin beharrezkoak diren elkarrizketa eta harremanen zereginak.

2.3 Entitateek ez dute egon behar Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauko 12. artikuluan ezarritako debekuetan.

2.4 Sexuaren ziozko bereizkeria dela-eta zigor edo administrazioaren arloan inoiz zehapenik jaso ez izana, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

2.5 Armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketan ez aritzea, abenduaren 28ko 14/2007 Legeak, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarenak, xedatutakoaren arabera.

2.6 Ezingo dira onuradun izan Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza legez kontrakoa dela eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela aldeztu aurretik erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindupean dauden enpresak; ezta krisian dauden enpresak ere, 651/2014 Erreklamenduak (EB) bere 2. artikuluen 18. atalean egiten duen definizioaren arabera.

2.7 2.3, 2.4, 2.5 eta 2.6 oinarrietan adierazitakoaren egiaztapena entitate eskatzailearen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez egingo da, zeina Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentura zuzenduko baita.

2.8 Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren eta deialdia ebatzi aurretik titulartasuna aldatzen bada, entitate eskatzailearen izaera galduko da.

Aldaketa eskaerak aurkezteko epea bukatu baino lehen egiten bada, entitate titular berriak eskaera berri bat egin beharko du.

3. Oinarria. Dirulaguntzen xede diren jarduerak.

3.1. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako hauek izango dira:

- a) Funtsezko ikerketa proiektuak.
- b) Ikerketa industrialeko proiektuak.
- c) Garapen esperimentaleko proiektuak.
- d) Interes bereziko ekintza osagarriak: Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sareko (ZTBES) erakunde bat, gutxienez, barne hartzen duten ekintzak, prospektiba eta zaintza azterlanak egiteko; eta lankidetzak, transferentzia, dinamizazioa, sustapena, hedapena eta zabalkundea bultzatzeko ekintzak, funtsezko eta industria arloko ikerketa proiektuekin lotutako jardueretan.

3.2 Diruz lagun daitezkeen jarduerak honako gai hauetara bideratuta egongo dira:

- Balio erantsiaren aukera.
- Jarduera ekonomikoaren jarraipena.
- Enpresen arteko lankidetzak.
- Ekonomia sortzailea.
- Enplegu-gune berriak.

3.3. 651/2014 Erregelamenduko (EB) 6. artikularen arabera, oinarri hauetan arautzen diren dirulaguntzak emango dira soilik laguntza jasoko duen enpresaren jardueran pizgarri efektua sortzen badute:

- ETE baten kasuan, laguntzak pizgarri efektua duela ulertuko da, baldin eta enpresak proiektuan edo jardueran lanean hasi aurretik aurkeztu badu laguntza eskaera.
- Enpresa handiei dagokienez, laguntza batek pizgarri efektua duela ulertuko da baldin eta aurreko atalean ezarritako baldintza betetzeaz gain, entitateak bere eskaeran egiaztatzen badu laguntzak emaitza hauetakoren bat edo gehiago izango dituela:
 - Laguntzari esker, proiektuaren edo jardueraren irismena nabarmen handituko da, edo
 - Laguntzari esker, enpresa onuradunak proiektuan edo jardueran inbertituko duen zenbateko osoa nabarmen handituko da, edo
 - Proiektuaren edo jardueraren exekuzio erritmoa nabarmen handituko da.

4. Oinarria. Proiektuak aukeratzeko irizpideak.

4.1. Eskaerak hautatzeko, honako balorazio irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- a) Proposamenaren kalitatea (hartutako estrategiaren argitasuna eta izaera bereizgarria eta eraldatzailea, eta proposatutako helburuen eta garatu beharreko ekintzen eta metodologiaren arteko dimentsionamendu egokia eta koherentzia, eta programaren helburuekiko lerrokatze maila): 25 puntu gehienez.
- b) Garapen Jasangarriko Helburuak lortzen zer mailatan laguntzen duen: 15 puntu gehienez.
- c) Garatu beharreko ekintzek/ekimenek ikasitako ikasgaietan eta emaitzetan izan dezaketen eragina; hau da, Gipuzkoan ekonomia sustatzeko estrategiak eta programak orokortzea eta zabaltzea, garapen ekonomiko-sozialerako eta kalitatezko lanpostuak sortzeko eredu jasangarri batean: 15 puntu gehienez.
- d) Garatu beharreko ekintzen/ekimenen eragin potentziala, ikasitako ikasgaietara eta emaitzei dagokienez; hau da,

orokortzea eta zabaltzea garapen ekonomiko-sozialeko eta kalitatezko lanpostuak sortzeko eredu jasangarri batera: 15 puntu gehienez.

e) Lurralde, eskualde/toki eta/edo sektore garapenaren estrategiarekin bat egitea: 10 puntu gehienez.

f) Lankidetzaren intentsitatea eta kalitatea (entitate eskatzaileak lankidetzan lan gisa bai entitatearen barruan bai hirugarren entitateekin, hartutako konpromisoak, baita garatutako partaidetza prozesuak ere): 10 puntu gehienez.

g) Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna: 5 puntura arte.

h) Euskararen aldeko ekintza positiboak izatea: 5 puntura arte.

4.2 Aurreko ataletako irizpideen arabera 50 puntura iristen ez diren proiektuek ez dute eskubiderik izango dirulaguntza jasotzeko.

5. Oinarria. Diruz lagundu daitezkeen kostuak.

5.1 Diruz lagunduko dira:

a) Langileen kostu zuzenak, proiektuari lotutako lanetan ari diren neurrian (ikertzaileak, teknikariak, eta ikerketa lanetan aritzen diren beste langile batzuk, entitate eskatzailearen plantillakoak).

Proiektuan emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/ordu gehienez.

b) Kontratuzko ikerketak, eskuratutako ezagutzak, eta, kanpoko iturrien baimen bidez, erabateko eskumen baldintzekin, lortutako patenteek eragindako kostuak, eta baita ere proiektura bideratutako aholkularitza eta zerbitzu baliokideen kostuak.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/ordu gehienez.

c) Kanpoko aholkularitzaren eta zerbitzu baliokideen kostua (entitate parte hartzaileetako langileak ez diren laguntzaileak, eta proiektuaren oso espezializatuak diren zatien azpikontratazioa barne), betiere kanpoko iturriei erositako, zerbitzu horiek ikerketarako soilik eta modu jarraian erabiltzeko baldin badira, ezagutza teknikoak eta ikerketa ezagutzak barne.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/ordu gehienez.

d) Lan horretarako akreditatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sareko eragileen azpikontratazioaren kostuak.

Proiektuari emandako orduen ziurtagiria aurkeztuko da.

Kanpoko langileen kostuak hautagarriak izango dira, 69,29 €/ordu gehienez.

e) Gastu hautagarriak izango dira proiektuen sustatzaile ez diren entitateetako langileen bidaiari eta egonaldiei dagozkienak bakarrik.

f) Kostu orokorrak edo zeharkakoak: zeharkako kostu gisa konputatuko da diruz lagundu daitezkeen langileen zuzeneko kostuen % 15a.

g) Lanabesen eta materialen kostuak, proiekturako erabiltzen diren neurrian; lanabesen eta materialen bizitza baliagarri osoa ez bada proiekturako erabiltzen, diruz lagungarritzat hartuko dira proiektuaren iraupenari dagozkion amortizazio kostuak, orokorrean onartutako kontabilitateko printzipioen arabera kalkulaturakoak.

h) Proiektutik zuzenean eratorritako ustiapen gastuak, material, hornidura eta antzeko produktuen kostuak barne.

5.2. Aurreko atalean aipatutako diruz lagungarriak diren gastuak 651/2014 Erregelamendu Orokorrak, kategorien arabera salbuespenari buruzkoak, 2 eta 25 artikuluetan ezartzen duenaren arabera interpretatuko dira.

6. Oinarria. Dirulaguntzen gehiengo ehunekoak

6.1. Laguntzen ehunekoak honako hauek izango dira:

- a) Funtsezko ikerketa proiektuen kasuan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100.
- b) Ikerketa industrialaren proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 50.
- c) Garapen esperimentaleko proiektuetan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 25.
- d) Interes bereziko ekintza osagarrietan, diruz lagundu daitezkeen kostuen % 100 funtsezko ikerketa proiektuei lotuta badaude, eta % 50 ikerketa industrialeko proiektuei lotuta badaude.

6.2. Aurreko b), c) eta d) ataletan ezarritako ehunekoak % 80 gehitu ahal izango dira honelako kasuetan:

- Eskatzaileak enpresa ertainak direnean % 10, eta enpresa txikiak direnean % 20.
- % 15 baldintza hauetakoren bat betetzen bada:
 - Proiektuak benetako lankidetzara behar izatea.

Enpresen artean, gutxienez bat ETE bada, edo bi estatu kideetan gutxienez garatzea, edo estatu kide batean eta EEEko erabakian alderdi kontratatzaile batean; aldi berean, enpresa batek ez du, bere kabuz, diruz laguntzekoak diren kostuen % 70 baino gehiago ordainduko.

Enpresa baten eta ikertzeko eta ezagutza hedatzeko zeregina duen organismo baten edo batzuen artean, horiek beren gain hartuko dute, gutxienez, diruz laguntzekoak diren kostuen % 10, eta beraien ikerketen emaitzak argitaratzeko eskubidea izango dute.

- Proiektuaren emaitzak zabal hedatzea, hitzaldi, argitalpen, sarbide askeko datu-base, eta doako edo iturri irekiko programa informatikoen bitartez.

6.3 Enpresaren tamaina zehazteko kontuan hartuko dira 651/2014 Erregelamenduaren (EB) I. eranskinean jasotako definizioak eta kalkuluak.

7. Oinarria. Sustapen eta finantziario publikoen eragina.

7.1. Lagundutako eta kofinantzatutako ekintzen potentziala maximizatzeko eta, horrela, ekintza horien benetako eragina bermatzeko, prozesu eta emaitza onak eta garatutako jardunbide egokiak nahiz hobetzeko esparruak transmititzeko, baliabide publikoen erabilera mugatua errentagarri bihurtzeko modu egokian, eta etorkizuneko politika eta jardunbideetan eragina izateko; lagundutako proiektuak aprobetxamendu prozesu batean sartu ahal izango dira, bai Gipuzkoako Foru Aldundian erabakiak hartzeko ardura dutenei transmititzeko prozesu planifikatu batean, bai garatutako proiektuak lurraldeko enpresen eskura jartzeko prozesu batean, eta baita ere proiektu horien emaitzak onartzeko eta/edo aplikatzeko eskumena duten bitarteko eta azken erabiltzaileei zuzendutako dinamiketan - pertsona, entitate eta enpresak- eta horrela, Gipuzkoan enpresa ehunaren lehiakortasuna indartzea, jasagarritasuna eta lankidetzara sustatzea.

7.2. Zabalkunde publikoko edozein ekitaldi egin aurretik, horren berri emango da, eta bertan parte hartzeko gonbida bidaliko da. Entitate onuradunak ekitaldi horien berri ez emateak ekar dezake emandako dirulaguntzaren %10 itzularaztea, eta errepikatuz gero, dirulaguntza osoa.

7.3. Proiektuek argitalpenetarako sarbide irekia bermatuko dute, lortutako emaitzak hobeto ustiari eta zabaltzeko, Europar Batasunaren ikerketa jarraibideekin bat etorritik.